

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Bermeoko Udala****2021eko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartzea****Xedea**

2021. urterako udal Lanpostuen Zerrendaren aldaketa.

Aurrekariak

Lehenengoa: Antolakunde batean, faktore nagusi eta ezinbestekoa dira giza baliabideak kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko eta ezarritako helburuak lortzeko, pertsonak baitira erakundearen kapital nagusia. Hortaz, argi dago, administrazioetan giza-baliabideen kudeaketa egokia burutzea funtzeskoa dela, horrela lor baitezakegu administrazio eraginkorra eta efizientea izatea, hau da, gaitasuna duena herritarrei kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko.

Gizartea etengabeko eraldaketa batean murgilduta dabil, eta udalak dira herritarrengan hurbilen dauden antolakundeak, beraz, ezinbestekoa da horien antolakuntzak herritarren beharrezanetara egokitzea, giza baliabideen kudeaketa eraginkor baten bidez.

Bigarrena: Ezinbestekoa da, udal plantilla eta lanpostuen zerrendan dagozkion eguneratzeak gauzatzea, lanpostuen zerrenda baita erakundearen antolamendua egituratzeko erabili beharreko tresna, giza baliabideen arrazionalizazio eta optimizazioa lortu ahal izateko.

Argudioak

Lehenengoa: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren legearen testu bategin onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 74. artikulua ezartzen du:

«74. artikulua. —*Lanpostuak antolatzea*

Administrazio Publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabilia egituratuko dute beren antolamendua. Zerrenda horietan, gutxienez, honako hauek jaso behar dira: lanpostuen izena, lanbide-sailkapeneko taldeak, hala dagokionean, atxikita dituzten kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak. Erabilitako tresna horiek publikoak izango dira.»

Bigarrena: Apirilaren 2ko Tokiko Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzailearen 90.2. artikulua xedatzen du Tokiko Entitateek haien erakundeko lanpostuen zerrenda egin beharko dutela, funtzio publikoaren inguruko oinarrizko legediak diotenaren arabera, eta Estatuari dagokiola Lanpostuen Zerrendak, lanpostuen deskripzioak eta beraien eraketarako bete beharreko baldintzak lantzeko oinarri hartu beharko diren arauak ezartzea.

Tokiko Erregimenaren eremuan indarrean dauden Xedapen Legalen Testu Zuzendua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 126.4. artikulua dio LPZak funtzio publikoaren oinarrizko legedian jasotako edukia izan beharko dutela eta apirilaren 2ko tokiko Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzailearen 90.2. artikuluan jasotako arauak oinarri hartuz garatu beharko direla.

Hirugarrena: 2021eko otsailaren 16ko 8. zenbakidun Lan Arloko Epaitegiaren 57/2021 sententziaren epaiaren bidez, langilearen lagatze ilegala aitortu zen eta ondorioz, 2021eko apirilaren 19ko 1098/2021 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, Bermeoko Udalak 30.675.977A zenbakidun langileari mugagabe ez finko izaera onartu zitzaion.

Hori dela-eta, ezinbestekoa dugu Lan orientatzaile lanpostu hori lanpostuen zerrendan sortzea:

- *Plaza izaera:* Lan itunpekoa.
- *Lanpostua:* Lan orientatzailea (A2).



Laugarrena: Uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 14.1. artikulua ezartzen du:

«14. ATALA

1. Lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan-itunpeko lanari finkoentzat eta behin-behingoentzat gordetakoak bereiziz.»

Halaber, 6/1989 legearen 17. artikuluan xedatzen da:

«17. ATALA

Aurrekontuetan ohartemandakoei egokitu zaizkie lanpostu-zerrendak, eta ez dute jasoko dagokion ekitaldirako aurrekontu-zerrendetan ohartemandako kredituek erantzun ezineko diru-hornidura duen lanposturik.»

Aipatutako artikuluekin bat etorritik, kontuan izanda egitura-beharrizanak eta 2021. urterako aurrekontuan diruz hornitutako lanpostuak, honako lanpostu hauek sortzea proposatu da:

Saila	Kodea	Lanpostua	K	TL	ML	B.O.	HE	D.D.	D	PN	HS	EB	Oharrak
ATB	1109202	ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	17.718,86	3	OB	A	L	L	EG	Hutsik
Zerbitzu	1102211	HIRI HONDAKIN SOLIDO BILK GIDARIA	1	C2	11	18.133,98	1	OB	A	F	L	EG	GB «C» Hutsik
Zerbitzu	1102101	ESKOLETAKO MANTENTZE LANGILEA	1	C2	12	18.391,88	1	OB	A	F	L	EG	Hutsik (*)
Zerbitzu	1102207	OFIZIALA (soldagintza)	1	C2	12	18.391,88	1	OB	A	L	L	(1)	Hutsik (iraing)
Zerbitzu	1102207	OFIZIALA (biltegia)	1	C2	12	18.391,88	1	OB	A	L	L	(1)	Hutsik (iraing)
GOS	3010403	GIZARTE LANGILEA	1	A2	19	15.655,95	3	OB	A	L	L	EMT	Hutsik

Aipatutako lanpostuei dagozkien maila eta ordainsariei buruz, Bermeoko Udalaren lanpostuen zerrendan egun dauden lanpostuen dotazioa gehitzea den kasuetan, destino maila eta berariazko osagarri bera esleitu zaie.

Gaur egun Bermeoko Udala lanpostuen balorazioa prozesua lantzen ari da eta behin betiko onarpena egin arte, dotazioa gehitzea ez den kasuetan lanpostuaren balorazioaren behin-behineko emaitza esleitu zaie. Beraz, ezinbestekoa da Udalak balorazio prozesua lehenbailehen amaitzea, lanpostu horien egoera erregularizatu ahal izateko.

Bosgarrena: Diruzaintzako administrari laguntzaile lanpostu bien hizkuntza eskakizuna aldatzea proposatu da. Euskal funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.5 artikulua eta Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutakoa betez, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak beharrezko den txostena eman du, aipatutako diruzaintzako administrari laguntzaile lanpostuei proposatutako 3. hizkuntza eskakizunak ontzat hartuz.

Seigarrena: Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 14. artikulua arabera, lanpostuan bete beharrezko zeregin eta eginkizunen xedea euskara bera denean, lanpostuak TG kodea izan behar duenez, Euskara Saileko lanpostuetan dagozkion aldaketak burutu dira.

Zazpigarrena: 2020ko azaroaren 27an udal Osoko Bilkurak izandako batzarrean, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua desegitea hasieraz onartzea erabaki zuen. Entzunaldi epea amaitu ondoren, hasierako erabakia behin betiko bihurtu zen 2021eko urtarrilaren 19an.

2020ko abuztuaren 25eko datarekin, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua desegiteari buruzko txostena egin zuen Langileria teknikariak, eta langileak udalean integrazteak kudeaketa arloan izango zuen ondorioa nabaria adierazi zen.



Ondorioz, Gizarte Ongizaterako Sailean begiesten diren administrari laguntzaile lanpostu bi Langileria Saileko egiturara aldatzea eta kontulari lanpostua Ekonomia eta Ogasun Saileko egiturara aldatzea proposatzen da:

Kodea	Lanpostua	K	TL	ML	B.O.	HE	D.D.	D	PN	HS	EB	Oharrak
3010201	ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	17.718,56	3	93.12.31	A	L	L	EG	Hutsik
3010201	ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	17.718,56	3	OB	A	L	L	EG	Hutsik
3020302	KONTULARIA	1	C1	15	16.440,03	3	92.01.01	A	L	L	BAT	

Zortzigarrena: Uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 17. Artikuluan xedatutakoaren arabera, kontuan izanda lanpostuen zerrenda aurrekontuan begietsitakoari egokitu behar dela, aurrekontuetan zuzkidurarik ez duten lanpostuak lanpostuen zerrendan iraungitzea proposatu da:

Kodea	Lanpostua	K	TL	ML	HE	D.D.	D	PN
1106203	JAKINARAZLE-TELEFONISTA	1	C2	11	2	90/12/31	A	F
1106205	JAKINARAZLE-ORDENANTZA	1	C2	11	2	17/03/08	A	F
1109202	INFORMAZIO ETA ERREG ADM LAG	1	C2	12	3	93/12/31	A	F

Kodea	Lanpostua	K	TL	ML	HE	D.D.	D	PN
1103304	BULEGOETAKO UDALTZAINA	1	C1	14	2	90/12/31	A	F
11080441	DIRUZAINA	1	A2	22	4	92/01/01	A	F
11040131	GIDA TURISTIKOA / DENDARIA	1	C1	15	3	17/03/08	A	L
1102108	BIDE ETA HERRI LANAK PEOIA	2	LT	8	1	14/11/27	A	F
1102205	BIDE ETA HERRI LANAK GIDARIA	1	C2	11	1	90/03/25	A	F

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak bozketa nominatiboari ekin dio eta gehiengo osoz (EAJ-PNVko 9 kideen aldeko botoekin, EH Bilduko 5 kideen kontrakoekin eta Guzaneko 3 kideen abstentzioekin), honakoa

ERABAKI DU:

Lehenengoa: Bermeoko Udal lanpostuen zerrendan honako aldaketa hauek onartzea:

- Uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 14.1 eta 17. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako lanpostu hauek sortzea:

Saila	Kodea	Lanpostua	K	TL	ML	B.O.	HE	D.D.	D	PN	HS	EB	Oharrak
ATB	1109202	ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	17.718,86	3	OB	A	L	L	EG	Hutsik
Zerbitzu	1102211	HIRI HONDAKIN SOLIDO BILK GIDARIA	1	C2	11	18.133,98	1	OB	A	F	L	EG	GB «C» Hutsik
Zerbitzu	1102101	ESKOLETAKO MANTENTZE LANGILEA	1	C2	12	18.391,88	1	OB	A	F	L	EG	Hutsik (*)
Zerbitzu	1102207	OFIZIALA (soldagintza)	1	C2	12	18.391,88	1	OB	A	L	L	(1)	Hutsik (iraing)
Zerbitzu	1102207	OFIZIALA (biltegia)	1	C2	12	18.391,88	1	OB	A	L	L	(1)	Hutsik (iraing)
GOS	3010403	GIZARTE LANGILEA	1	A2	19	15.655,95	3	OB	A	L	L	EMT	Hutsik



2. 2021eko otsailaren 16ko 8. zenbakidun Lan Arloko Epaitegiaren 57/2021 sententzia exekutatu, Merkataritza, Sustapen eta Turismo Sailean lan orientatzaile lanpostua sortzea:
 - *Plaza izaera*: Lan itunpekoa.
 - *Lanpostua*: Lan orientatzailea (A2).
3. Diruzaintzako administrari laguntzaile lanpostuei proposatutako 3. hizkuntza eskakizuna ezartzea.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 14. artikulua arabera, euskara saileko lanpostuei TG kodea ezartzea.
Gizarte Ongizaterako Sailean begiesten diren administrari laguntzaile lanpostu bi Langileria Saileko egiturara aldatzea eta kontulari lanpostua Ekonomia eta Ogasun Saileko egiturara aldatzea:

Kodea	Lanpostua	K	TL	ML	B.O.	HE	D.D.	D	PN	HS	EB	Oharra
3010201	ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	17.718,56	3	93/12/31	A	L	L	EG	Hutsik
3010201	ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	17.718,56	3	OB	A	L	L	EG	Hutsik
3020302	KONTULARIA	1	C1	15	16.440,03	3	92/01/01	A	L	L	BAT	

5. Uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontuan izanda lanpostuen zerrenda aurrekontuan begietsitakoari egokitu behar dela, aurrekontuetan zuzkidurarik ez duten lanpostuak lanpostuen zerrendan iraungitzea:

Kodea	Lanpostua	K	TL	ML	HE	D.D.	D	PN
1106203	JAKINARAZLE-TELEFONISTA	1	C2	11	2	90/12/31	A	F
1106205	JAKINARAZLE-ORDENANTZA	1	C2	11	2	17/03/08	A	F
1109202	INFORMAZIO ETA ERREG ADM LAG	1	C2	12	3	93/12/31	A	F
1103304	BULEGOETAKO UDALTZAINA	1	C1	14	2	90/12/31	A	F
11080441	DIRUZAINA	1	A2	22	4	92/01/01	A	F
11040131	GIDA TURISTIKOA / DENDARIA	1	C1	15	3	17/03/08	A	L
1102108	BIDE ETA HERRI LANAK PEOIA	2	LT	8	1	14/11/27	A	F
1102205	BIDE ETA HERRI LANAK GIDARIA	1	C2	11	1	90/03/25	A	F

Bigarrena: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 34. eta 37.1.c) artikuluek xedatutakoaren arabera, 2021eko apirilaren 26an gaia negoziatu da eta adostasun gabe amaitu da.

Bermeon, 2021eko ekainaren 16an.—Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense